

Osoko bilkura

Donostian, 2013ko apirilaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari eta
Uribarren, Patxi.

Osa, Erramun, idazkariordea eta Zabaleta, Joseba, kudeatzailea.

Ezin etorriak eta ahalak: Arkotxa, Aureliak, ahala Miren Lourdes Oñederrari; Irazu, Jose «Bernardo Atxaga»k, ahala Andres Urrutiari; Salaburu, Pellok, ahala Miren Azkarateri; Zabaleta, Patxik, ahala Andres Iñigori; Zalbide, Mikelek, ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da Gipuzkoako Diputazioaren Batzar Aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Agurra eta hasierako oharra: Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, etorritakoen zerrenda irakurri eta jasoriko ahalak adierazi ditu.

1. XVIII. Barne Jardunaldietako (2013-03-21/22) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Hiru ohar egin dira; batetik, J. M. Torrealdai 5. orrialdeko «... edukia Pruden Gartzia...» jartzen duen tokian «... proposamen nagusiak Pruden Gartzia» jasotzea proposatu du; bestetik, A. To-

ledok dio 11. orrialdeko Literatura Ikerketa batzordearen egitekoak ez direla ondo jaso. Ondorioz, atal hori, behin betiko bilera-agirian berridatzi da; azkenik, Corpus batzordearen txostenaren aldian, akats bat antzeman da, 2016-2016 jartzen baitu, 2013-2016 jarri beharrean.

Hiru zuzenketak onartu dira. Horiek horrela, bestelako iruzkinik ez dagoenez gero, bilera-agiria onartu da.

2. Osoko bilkurarako (2013-03-22) bilera agiria onartzea, hala erabakiko balitz. J. L. Lizundiak ohar bat aurkeztu du, R. Badiolak bere erretiroko agur-ekitaldian aipatu zituen lau lankideak (Rosa Mari Artza, Juanjo Zearreta, Xabier Gereño eta Jose Antonio Arana Martija) ez direlako bilera-agirian jaso. Jasotzea hobetsi da. Ondorioz, bestelako oharrik ez dagoenez gero, bilera-agiria ontzat eman da.

3. XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko txostenei, aurkitegiari eta barne-erregelak egokitzeko proposamenei eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz

XVIII. Barne Jardunaldietan erabiliriko aurkibidea banatu da. Aurkibide honean zerrendatu dira XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko txostenek jaso dituzten ekarpenak, oharrak edota iruzkinak, bai eta nork eginak diren ere. Horiek horrela, ekarpenik, iruzkinik edo zuzenketarik jaso ez duten txostenak onartu dira, Barne Jardunaldietan erabakitakoaren arabera.

Ondorioz, «Aldirako (2013-2014 / 2016) ikuspegia eta helburu orokorrak» atala dela eta: euskaltzainburuak aurkezturiko «Abiapuntua (2013-2016)» txostenak ez du inolako ekarpenik jaso, beraz, onartu egin da; diruzaintzak aurkezturiko «Diruzaintza» atalak ere ez du oharrik jaso, beraz, hori ere onartu egin da; beste horrenbeste gertatu da X. Videgainek aurkezturiko «Euskaltzaindia Ipar Euskal Herrian (etorkizunerako abiapuntuak eta erabakiak)» txostenarekin ere.

Idazkaritzak aurkezturiko txostenak ekarpen bat jaso du, M. Azkaratek egina. Horiek horrela, euskaltzainburuak hitza M. Azkarateri eman dio, ekarpena azal dezan. Honek, sei hilean behin batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen jarduna eta plangintzarekin alderatzea eta horren berri Osoko bilkurari ematea proposatu du. Euskaltzainburuak erantzun dio eskerrak emanez, eta hori bideratzeko prozeduraz mintzatu da. Konforme agertu da eta batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen erantzukizuna eskatu du.

M. Azkaratek informazioa aldizka jasotzea ere eskatu du, ibilian dabiltzan proiektuen berri jakiteko. Bidezkoa iruditzen zaio A. Urrutiari baina, aldi berean,

horiek aldean izan dezaketen konfidentziasuna hausteko arriskuaz ere ohartarazi du.

X. Videgainek ea nolako txostenez ari garen galdetu du. Lehenago, aldizka berderen, arratsaldeko batzarrak egiten zirela aipatu du, hor gainerako euskaltzainei horien berri emateko. J. L. Lizundiak, X. Videgainen bidetik, zuzendaritzari, gehienbat, kontrol administratiboa dagokiola gogoratu du, baina bada ezaguera akademiakoaren eremua ere, kontuan hartu behar dena.

P. Uribarreni ondo iruditzen zaio, aldizka behintzat, batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuek beren lanen berri eskaintzea. A. Urrutiak galdetu du ea noraino azaldu beharko liratekeen martxan dauden lan bakoitzaren nondik norakoak. Bere ustez, ez betetze larriak behintzat jakinarazi beharko lirateke.

I. Sarasolak horien kontrola zuzendaritzari dagokiola uste du eta, gaizki joaten ahalko balira, interesatuei lehenik abisu partikularrak eman beharko litzaizkiekeela pentsatzen du, eta kasurik txarrean, horien egoera Osoko bilkurari azaldu.

Kontua, E. Osaren aburuz, lanen jarraipena egitea da, ez kontrolatzea. Gainera, beharrezkoa da desberdintzea, alde batetik, egitasmoak eta zerbitzuak, eta bestetik, batzordeak eta lantaldeak. Izan ere, egitasmoetan eta zerbitzuetan pertsona batzuk lan horretarako liberaturik daude; beste batzuk, aldiz, kontratuak dituzte; batzorde eta lantaldeen kasuan, ordea, parte hartzen duten pertsonak ez daude hain baldintza estuekin lotuak.

A. Arejitak jarraipena aldizka egiteari ondo deritzo, baina ez kontrol hertsiegiaz, hori Zuzendaritzari baitagokio. Alde horretatik, besteren artean, egitasmoen berri izateko arratsaldeko jarduna, praktikoa izan daiteke.

Euskaltzainburuak M. Azkarateri honako proposamena egin dio: aurreko azaroko eta abenduko bi Osoko bilkurak horretarako baliatzea. Batean, egitasmoak eta zerbitzuak aztertuko lirateke. Bestean, batzordeak eta lantaldeak. Ontzat eman da M. Azkarateren oharra.

Ondoren, «Arreta bereziko arloak (2013-2014/2016)» atala dela eta: J. M. Torrealdaik aurkezturiko «Azkie Biblioteka eta Euskaltzaindiaren Artxiboa» txostenak ez du inolako oharrik jaso, beraz, bere horretan onartu da.

P. Salaberrik aurkezturiko «Onomastika arloa» txostenak J. L. Lizundiaren oharra jaso du. Txosten honen 9. orrialdeko esaldi bat ondoko honekin ordezteko proposatu du: «Gasteizko toponimia egitasmoaren teknikaria den Elena Martinez de

Madina eta Onomastika zerbitzuaren arduraduna den Mikel Gorrotxategi». P. Salaberri txostengileak onartu du.

A. Sagarnak azalduko «*Jagonet* eta hizkuntzaren kalitatea» txostenak, M. Azkarateren iruzkina jaso duenez gero, euskaltzainburuak hitza M. Azkarateri eman dio, azal dezan. Honek, *Jagonet* zerbitzuak gaika jaso dituen galderak eta emaniko erantzunak oinarritzat hartuz, *Jagonet* zerbitzua Corpus Batzordearen ardurapeko izan arren, HIZBEAk ukitzen dituen sailen artean Gramatika batzordea ere bada-goela azpimarratu du.

I. Sarasolak, bere aldetik, galdetu du ea behatokia noraino izango den arauemaile, eta noraino lotzen duen zerbitzu horrek Euskaltzaindia. HIZBEA arauemailea ez dela izango eta, Euskaltzaindiak onarturiko arauak zabalitzeaz, gizarteratzeaz eta hizkuntzaren erabiltzaileek dituzten beharrak bideratzeaz arduratuko dela esan da. Jarrera proaktiboa izango du zerbitzuak. Beharrak antzematen direnean, batzordeekin, lantaldeekin, egitasmoekin eta zerbitzuekin lan eginez.

A. Urrutiak HIZBEAk Gramatika batzordea ez ezik beste batzorde, egitasmo eta zerbitzu batzuk ukitzen dituela nabarmendu du. Hori horrela izanik, ukituriko batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen arteko koordinazioa ezinbestekoa dela azaldu du.

A. Sagarnak batzuen eta besteen ekarpenak ondo ikusi eta HIZBEAren diziplinartekotasuna izan du hizpide.

I. Sarasolak uste du aukera garbi dagoela, hots, berez datorrenari erantzun edo zer behar den pentsatzen hastea, horri erantzuteko. A. Urrutiak esan du Euskaltzaindiak orain arte sistema klasikoari segitu diola, eta galderak etorri ahala, horiek batzordeetara bidali eta hor erabaki eta erantzun direla, baina horrek argi erakutsi du lorturiko emaitzak ez direla hain onak, eta kalitatea jaitsi egin dela.

Aspaldian egin eta metatuz doazen erabakiak kontuan izanda, P. Uribarrenen ustez, lexiko eta onomastikaz gero eta galdera gutxiago etorriko dira Euskaltzaindian, baina gramatikan, ordea, kontsultak, segur aski, ugaltu egingo dira. Eta, galdera horietarako, jendeari kontsulta egiteko tokia eskaini behar zaio. Bide horrexetatik abiatuz, M. Azkaratek pentsatzen du horrelako zalantzak estilo-liburu batean jarri eta argitu beharko lirakeela.

I. Sarasolak esan du begi-belarriak erne eduki behar direla eta kalean zer dabilen entzun eta ikusi behar dela. X. Kintana ere iritzi berekoa da.

B. Oihartzabalek pentsatzen du lehenago gauzak ongi azertu beharra dagoela, hortik gero arauak ateratzeko. Gogoan izan behar da, gainera, beste teknikari eta profesionalek ere Euskaltzaindia aintzat hartzen dutela, eta beroriek ere erabilera batzuk zuzentzen dihardutela.

A. Sagarnaren iritziz jendeak ez ditu aspaldian erabakiak eguneratu. Horretarako beharrezkoa iruditzen zaio komunikabideekin harreman hurrekoak izatea. A. Urrutiak konforme dagoela esan du eta «koordinazioa» hitza azpimarratu du berriro.

Zuzendu beharrekoen artean, X. Kintanak euskara gaizki tratatzen duten erdal erabilera nabarmen batzuk salatu ditu (*de sus aitas y aities...*), euskararen oinarrituriko erdal egitura horiekiko kutsadurak gure hizkuntzari kalte handia egiten diolako. Erdarakada horiek baztertzeke, erdal prentsaren arduradun batzuekin mintzatu beharra aipatu du. Halere, I. Sarasolak uste du erdal testuetako euskarakada okerrak zuzentzen ibiltzea ez dela Euskaltzaindiaren zeregina.

A. Arejitak, I. Sarasolak lehen aipatu duen kezka bera dauka: nola erantzun behar dien Euskaltzaindiak heltzen zaizkion galderei, Akademiak kanpoan lehiakide batzuk dituenean. *Jagoneten* bidez zerbait ezberdin eskaini beharko luke Euskaltzaindiak.

Elkarrizketaren ondoren, batzordeak, lantaldeak, egitasmoak eta zerbitzuak jar-tea hobetsi da, «Gramatika batzorde» soila beharrean.

Segidan, «Aldirako (2013-2014/2016) ikuspegia eta helburuak, arloka» atala dela eta: I. Sarasolak aurkezturiko «Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibi-deak)»; X. Kintanak irakurririko «Zientzia eta Teknika Hiztegia»; A. Sagarnak azalduko «Lexikoaren Behatokia»; J. Lakarrak jorratutako «Euskal Hiztegi Etimologikoa»; P. Rekaldek paraturiko «Euskalkien lantaldea»; M. Urkiak landuriko «Hiztegi Batuko lantaldea»; A. Arejitak aurkezturiko «Euskararen Herri Hizkeren Atlas» eta X. Kintanaren «Exonomastika» txostenek inolako oharrik jaso ez dutenez gero, guztiak onartu dira.

P. Salaburuk XVIII. Barne Jardunaldietan aurkeztu zuen «Gramatika» txostenak oharra jaso du, A. Urrutiak idatzia. Azken honek, P. Salaburuk etortzerik izan ez duenez gero, maiatzeko Osoko bilkuran gaia aztertzea eskatu du. Osoko bilkurak onartu du eskaria. Era berean, M. Azkaratek eskatu du oharra alde zuzentzeko Gramatika batzordeko buruari. Hala egiteko ahaleginak egingo direla esan da.

Atal bereko gainerako txostenek dagokienez: P. Esnalen «Herri Literatura batzordea»; J. Haritschelharren «Literatura Ikerketa batzordea»; A. Urrutiaren «Cor-

pus batzordea»; S. Alemanen «Sustapen batzordea»; M. Zalbideren «Euskararen Historia Soziala» eta A. Urrutiaren «Argitalpen batzordea eta *Euskera* agerkariaren Idazketa kontseilua» txostenek oharrik jaso ez dutenez gero, horiek ere onartu dira.

M. L. Oñederrak aurkezturiko «Ahoskera lantalde suntsikorra» txostenak, ekarpen bat jaso du A. Urrutiaren aldetik. Aldian zehar garatu nahi den plangintza nola gauzatuko den galdetu du, hots, lantaldea izaten segitzea edo batzorde baten izaera hartzea ez ote den komeni. Era berean, batzordea izanez gero, osaketa ere zein izan daitekeen galdetu du.

Hari horri tira eginez, M. L. Oñederrak azaldu du zergatik Ahoskerarena lantaldea den, eta ez batzordea. A. Urrutiak gehitu dio Urkiolako Barne Jardunaldietan halaxe eratzea erabaki zela. Horren inguruan, historia eta gogoetak ere egin ditu. M. L. Oñederrak A. Urrutiak eginiko galderei erantzuteko tarte bat behar duela adierazi du. Izan ere, gaur jaso du A. Urrutiaren ekarpenaren berri, beraz, ez du izan astirik galdera horiei buruz gogoeta egiteko.

A. Arejitak uste du M. L. Oñederrari denbora eman behar zaiola, hori erabaki dezan. Berak batzorde baten izaera ikusten dio, baina erabakia haren esku utzi behar dela uste du.

A. Arejitak hitz egin ondoren, Osoko bilkuran atsedena hartzeko eten laburra egin da.

Ordu erdiko etenaren ondoren, elkarrizketari segida eman zaio. P. Goenagak hartu du hitza. Honek, A. Arejitaren proposamenari jarraikiz, uste du gauzak egiteko denbora eman behar dela, inprobisatzen aritu gabe, eta galdera bat egin du: zer arrazoi dago euskaltzain osoei galderak egiteko epe bat jartzeko eta Osoko Bilkura arte horien berri ez izateko?

J. L. Lizundiak ere, A. Arejitak esandakoaren bidetik, hurrengo baterako, maiaztzerako, edo geroagorako utz daitekeela esan du. A. Urrutiak bere harridura adierazi du, baina ontzat ematen du, eta ez dauka ezer hurrengorako, maiaztzeko batzarrerako uztearen kontra. Proposamena nola ekarriko duen galdetu du.

Azkenean M. L. Oñederraren esku uztea erabaki da, berak Osoko bilkuran aurkez dezan bere proposamena.

Gai honen ondoren, «Batzordeak eta lantaldeak: 2013-2016 aldirako osaketa» atala landu da Osoko bilkuran. Aurkitekiko «Hiztegigintza» dela eta, M. Azkaratek egin duen ekarpenean, adierazi du hasieratik parte hartu duela Euskaltzaindiaren

Hiztegi Batuan, bai eta oraintsu arteko Batzorde ahaldunduan ere. Horiek horrela, hurrengo urteetan Hiztegi giza gaiak landuko dituen Batzorde ahaldunduko kide izan nahi duela adierazi du. A. Urrutiak esan du Idazkaritzak aurkezturiko txostenean «Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak (2. itzulua)» dela batzorde horren izenburua, ez, «Euskaltzaindiaren hiztegia (2. itzulua) batzorde ahaldundua». Era berean, hor jaso beharreko hiru euskaltzainen izenak X. Videgain, J-B Battittu Coyos eta A. Sagarna direla gaineratu du. Idazkaritzak eginiko okerra onartu eta zuzenduko duela esan du.

A. Sagarnak bere aldetik, «Hiztegi Batuko lantaldearen» osaketa aztertzen ari direla eta maiatzeko Osoko bilkurara behin betiko zerrenda ekarriko dutela esan du.

«Zientzia eta Teknika hiztegia biltzeko egitasmoa», «Lexikoaren Behatokia egitasmoa» eta «Euskal Hiztegi Historiko eta Etimologikoa egitasmoa» dauden daudenean utzi dira. Gramatika batzordearen osaketari buruz jaso diren ekarpenak maiatzeko Osoko bilkurarako, hots, 2013-2016 aldirako proposamena eztabaidatzen denerako utzi dira. «Euskararen Herri Hizkeren Atlas» dagoen horretan utzi da.

Onomastika batzorde ahaldundua dela eta, J. L. Lizundiak idatzi dituen oharrak irakurri ditu; batetik, Batzorde ahaldunduak onomastika arloko kontuen programazioa Zuzendaritzari aurkeztea eta, honek onartu ondoren, berresteko Osoko bilkuran azaltzea proposatu du; bestetik, 4.1. puntuari, Batzorde ahaldunduko idazkaria Onomastika zerbitziburua izatea eskatu du (beste horrenbeste Onomastika batzordeari buruz); azkenik, 6. puntuari, lanei buruzko jarraipenari dagokion atalean, alderdi akademikoaren arta Iker sailburuak egitea eta, antolakuntzaren ikuspegitik, idazkariordeak koordinatzea proposatu du. Era berean, Batzorde ahaldunduko zerrendari beste bi euskaltzain osoen izenak gehitzea proposatu du: P. Uribarren eta A. Iñigo.

Lehenbizikoari buruz, batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzu guztiekin hala egiten dela esan du euskaltzainburuak; bigarrena, ordea, Idazkaritzaren hutsa izan da. Izan ere, P. Salaberrik halaxe aurkeztu zuen. Idazkaritzak barkamenak eskatu dizkio P. Salaberriri; hirugarrenari buruz, koordinazioa idazkariordeak eta P. Rekaldek elkarrekin egiten dutela esan da.

Batzorde ahaldunduaren osaketa dela eta, P. Salaberrik ez deritzo ongi batzorde ahaldundukoa ez den batek proposamenak, buruarekin kontsultatu gabe, egiteari. Inguaruabar horretan, P. Uribarrenek zalantzak ditu. Izan ere, beste batzorde batzuetan ere badago eta, aurrerantzean, Euskalkien lantaldeko burugoa ere hartuko du. Horiek horrela, izatekotan, aholkularia izan daitekeela eta batzordeburuak eska

diezaionean bere ekarpena egingo duela adierazi du. A. Iñigok, bere aldetik, iaz, Gasteizen, Arabako Foru Aldundian izaniko Osoko bilkuran batzordea uzteko pizuzko arrazoiak eman zituela gogora ekarri du, orduko hartan esanikoetan atzera egiteko arrazoirik ez du ikusten. J. L. Lizundiak ohar-proposamenak egitea euskaltzain baten eskubidea eta obligazioa ere izan daitekeela argitu ondoren, oharrok erretiratu egin ditu.

Batzorde ahaldunduko idazkariak ahotsa bai baina botorik ez izatea dela eta, elkarrizketa egon da. X. Kintanak pentsatzen du ez dela bidezkoa batzordeko inor botorik gabe uztea. I. Sarasolak, bere aldetik, ez ditu ulertzen botodunen eta botogabeen bereizketa horiek. Izan ere, bera egon den batzorde eta lantaldeetan erabakiak luze-zabal eztabaidatu ondoren, adostasunez hartu ohi dira. M. Azkarate I. Sarasolarekin bat dator.

P. Salaberrik erabakia interesatuarekin adostua izan dela esan du. X. Kintanaren ustez, era horretako salbuespenak arautegian sartu beharko lirateke. Elkarrizketa-rekin amaitzeko, neurri hori ez dela hain ezohikoa gogoratu du Euskaltzainburuak. Ondorioz, gaia batzordeburuak proposatu duen eran geratu da.

E. Osak segitu du sail eta batzorde guztiak nola osaturik gelditu diren azaltzen. Ondokoak dira aldaketa izan duten batzordeak: Herri Literatura batzordean Xabier Itzainaren izena gehitu da, X. Videgainek proposaturik; Corpus batzordean Eneko Barrutiaren eta Juan Jose Zubiriren izenak gehitu behar dira, A. Urrutiak eta A. Iñigok proposaturik, hurrenez hurren. Batzorde honetatik A. Iñigoren izena kendu behar da, aspaldi bideratu baitzuen eskabidea; Euskalkien lantaldean, burua P. Uribarren euskaltzaina izango da, idazkaria, berriz, Paskual Rekalde. Era berean, Juan Jose Zubiriren izena gehitu behar da, A. Iñigoren proposamenez. Aholkularien artean Allande Socarosen izena gehitu da, J-B *Battitu* Coyosek proposatuta. Batzorde honetatik, A. Iñigoren izena kendu behar da, aspaldi bideratu baitzuen eskabidea; Sustapen batzordean Ibon Usarralderen izena gehitu behar da, S. Alemanek proposatuta; Egiturazko batzorde eta egitasmoen kasuan eguneratu dira. R. M. Azkue Biblioteka batzordean Marie-Andrée Ouret-en izena gehitu behar da, X. Videgainek proposaturik. Nolanahi ere, azken kontu hau ez da ziurra baimena eskuratu behar baitu. Horiek horrela, aholkulari izendatzea iradoki du A. Urrutiak.

Laburbilduz, maiatzerako utzi dira Hiztegi Batuko lantaldearen, Gramatika batzordearen eta Ahoskera lantalde suntsikorraren behin betiko osaketa. Era berean, batzordekide izendatu berri diren guztien curriculumak eskuratu ditu Idazkaritzak, proposamenak egin dituztenek hala bidalita. Ondorioz, norbaitek curriculumak

eskuratu nahi baditu Idazkaritzari eskatzea eta euskarri informatikoan bidaltzea erabaki da.

«Barne-erregelen egokitzapenak» atala dela eta, XVIII. Barne Jardunaldietan M. Azkaratek, P. Goenagak eta A. Urrutiak eginiko proposamenei J. L. Lizundiaren eta A. Urrutiaren iruzkinak eta oharra jaso dira Idazkaritzan. Horiek horrela, Zuzendaritzaren osaera dela eta, M. Azkaratek gehitzeko proposatzen duen puntua (13.3) azaldu du (onartuz gero, orain arteko puntuen hurrenkera berridatzi behar da). Hona zer dioen: «Bi hilabeteko aurretiaz iragarriko da Osoko bilkuran hautaketa noiz izango den. Irarri eta hurrengo hilabetean jakingo da nor diren hautagaiak eta zein programa duten hurrengo lau urteetarako. Euskaltzainburu izateko hautagai bat baino gehiago balego, bakoitzak adierazi beharko du nor diren Zuzendaritza osatzeko proposatzen dituen euskaltzainak».

J. L. Lizundiak M. Azkarateren proposamena oinarritzat harturik bi zuzenketa egin ditu; batetik, Arautegiak 30. artikuluan dioena eta M. Azkaratek eginiko proposamena uztartzen saiatu da, karguak berritzeko ezarritako epeei dagokienez; bestetik, Zuzendaritza osatzeko bozketa dela eta, karguak banan-banan, ez, taldean, bozkatea jaso dadin eskatu du. A. Urrutiak M. Azkaratek eginiko proposamenak goragoko maila duen Arautegiaren 28., 29., 30., 31. eta 32. xedapenekin bateragarria ez dela esan du. Era berean, sistema horren bitartez, hautagai guzti-guztiak lurralde jakin batekoak izatea litekeena dela ere esan du. Horiek horrela, halako aldaketak adostasun zabalez egin behar direla azpimarratu du. Halaber, gogora ekarri du, iaz halako prozesu bati ekiteko eginiko proposamena.

Horiek horrela, hurrengo batean Zuzendaritzak gaia aztertzea eta Osoko Bilkurara ekartzea hobetsi da, euskaltzainekin iritzi-truke zabala egin ondoren.

Segidan, Barne-erregeletan 14.7 xedapenean jasorikoa aldatzera datorren proposamena aurkeztu du M. Azkaratek. Hona hemen aldaketa-proposamena: «Zuzendaritzari dagokio, dagokion batzordeko euskaltzain osoen proposamenak kontuan harturik, batzordekide izan daitezkeenak, dagokion batzarrean aurkeztea». Puntu honetan, A. Urrutiak Arautegiaren 8. xedapena gogora ekarri du, bere iruzkinean.

Eztabaida izan da, batetik, komeni ote den batzorde jakin bateko euskaltzain osoen eta gainerako batzordekideen arteko bereizketa egitea. M. Azkaratek adierazi du berdina izan daitekeela «batzordekideen» edo «batzordeburuaren» jartzea. Bestetik, «kontuan harturik» aditz esapiderearen esanahiak ere zalantza sortu du; horren ordez, «entzunik» jar daitekeela onartu du M. Azkaratek. Azkenik, 14.7 xedape-

nean egin litezkeen aldaketak batzordeei bakarrik ote dagozkien ala lantalde eta egitasmoeekin ere berdin jokatu behar litzatekeen galdetu du A. Urrutiak. Barne-erregelen artikulua horretan Batzordeak baino aipatzen ez direnez, horretara mugatu duela proposamena erantzun du M. Azkaratek. Baina aipatu da Barne-erregelen beharko dutela irakurketa patxadazkoa horrelako kontraesanak saihesteko. Beraz, gaia onbideratzeko hurrengo Osoko Bilkuretara proposamen bat ekartzeko erabakia hartu da.

14.7 xedapena jorratu ostean, Barne-erregelen egokitzapenei buruzko elkarrizketa eten eta hurrengo Osoko bilkuran jarraitzea erabaki da.

4. Eskuarrekoak

4.1. Sariak eta aitormenak. Europako parlamentari talde batek Euskaltzaindiak Europako Herritarra saria jasotzeko proposamena egin duela jakinarazi du euskaltzainburuak.

Era berean, jakinarazi da, Ramon Saizarbitoria idazle eta euskaltzain urgazleak irabazi duela Espainiako Kritikaren Saria, euskararen arloan, narratibaren atalean, *Martutene* liburuagatik. Euskaltzaindiak, aho batez, R. Saizarbitoriari bere zorionak helaraztea erabaki du.

4.2. J. L. Lizundia euskaltzain emeritu. J. L. Lizundia euskaltzain osoa, 75 urte bete dituela eta, Euskaltzaindiaren Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne erregelen 5.1. xedapenaren arabera, euskaltzain emeritua izatera igaro da, 2013ko apirilaren 9an. Hortaz, hutsartea iragarri da Arautegiaren 33. artikulua arabera.

Hutsartea hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango direla (Arautegiaren 33. artikulua eta Barne-erregelen 64.3. xedapena) eta Arautegiaren 34. artikulua dioena («Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar du. Proposamenduaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz») gogora ekarri dira.

4.3. Euskaltzaindiak eta AEK-k lankidetzaren hitzarmena izenpetu dute. Apirilaren 17an, AEK-k eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. AEKren izenean Mertxe Mujika koordinatzaile nagusiak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Eñaut Mitxelena AEK-k kaleratzen duen *Aizu!* aldizkariaren zuzendaria eta Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria ere izan ziren ekitaldian.

Besteren artean, hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko asmoz, argitaraturikoaren euskarazko testu multzoa, *Aizu!* aldizkarian sorturikoa batez ere, Akademiaren eskuetan jarriko du AEK-k.

4.4. Gaur banatuko diren liburuak.

- Ondoko hauek banatuko dira:
- *Antoine d'Abbadie, Abbadiaz*, Jean-Louis Davantek idatzia (Euskaltzainak bilduma, 19).
 - *Gratien Adema 'Zaldubi': Gaineratikoan bilduma*, Henri Duhauk paratua (Euskaltzainak bilduma, 20).
 - *Nafarroako ipar-mendebaldeko hizkeren egitura geolinguistikoa*, Amaia Apalauzak eginga (Mendaur bilduma, X).
 - *El paraiso y los gatos*, Bernardo Atxagak paratua. Iaz, Madrilen Etxeparek, RSBAP eta Euskaltzaindiak antolaturiko *Euskarari Gorazarre* jardunaldietan aurkezturiko ikuskizuna jasotzen duen liburua eta CDa (Madrilgo Círculo de Bellas Artes-ekin batera argitaraturikoa).

4.5. Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutzaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria. Euskaltzainei sari honetarako hautagaiak aurkezteko epea 2013ko apirilaren 30ean amaitzen dela jakinarazi zaie.

5. Azken ordukoak

5.1. Hurrengo Osoko bilkura Luis Villasante Euskararen Ikergunean egingo da. Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko bilkura Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean egingo da maiatzaren 31n, ohi bezala, goizeko 10:00etatik aurrera.

5.2. M. Zalbide aitona. Jakin berri denez, Mikel Zalbide euskaltzaina aitona izan da. Euskaltzainek zorionak bidaltzea erabaki dute.

5.3. Nafarroako gobernuarekiko hitzarmena. Euskaltzainburuak azaldu duenez, 2013ko apirilaren 10ean, Iruñean, Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko urteko lankidetzeta-hitzarmena izenpetu zen. Lankidetzeta Hitzarmenak 2013. urteko lan arloak zehazten ditu. Hala, hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak aurten 80.000 euro erabiliko ditu Euskaltzaindiak Euskal Corpus Onomastikoan egingen dituen lanetarako, eta Nafarroan Onomastikako eta Toponimiako lanak egiteko. Era berean, Nafarroako Gobernuak bestelako konpromisoak hartu ditu: Akademiaren Hiztegi Batua osatuko duela, Nafarroako euskalkietako

hitzak sartuz; hizkuntza kalitateko zerbitzua abian jartzen lagunduko duela; eta Akademiak eskatutako testuak gaztelaniatik euskarara itzuliko dituela. Euskarabideko langileak arituko dira zeregin horretan.

Sinadura-ekitaldiaren ondoren, Amaia Apaulazaren *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa* (Mendaur bilduma) aurkeztu da Euskarabidean.

5.4. J. L. Lizundiak zuzentzen duen Euskaltzaindiaren historia egitasmoa. J. L. Lizundiak galdetu du martxoko XVIII. Barne Jardunaldietan «Egitasmo Instituzionalak» aztertzea hurrengorako utzi zenez gero, gaur aztertuko ote diren. A. Urrutiak adierazi du Zuzendaritza J. L. Lizundiarekin hitz egiten ari dela, egitasmo horren zuzendaritza eramateko baldintzak adosteko asmoz. Adostasuna lortu ondoren, gaia Osoko bilkurara ekarriko duela esan du. Gauzak horrela, J. L. Lizundiak orain arte izan duen zuzendaritza zereginen desistitzen duela adierazi du. Honi buruzko argibideak aurrerago azaltzeko asmoa daukala ere gaineratu du.

5.5. Emile Larreren osasunaz. A. Urrutiak Iparraldeko euskaltzainei E. Larreren osasunaz galdetu die. X. Videgainek erantzun dio eta, astiro bada ere, onera egiten ari dela azaldu du.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da 14:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria